

Gondratarrak



MANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Familia bat baino ez dira gondratarrak, beste anitz familia bezalako-
xe. Euskal gatazka deritzonak pitzadura sakona eragin omen zion bere baitan, senide batzuk alde batean eta enparauak, berriz, bestean geratu zirelarik. Borja Ortiz de Gondrak antzerkia maite zuen, eta infernutik ihes egitea deliberatu, besteak beste, Taliaren erresuman murgiltzeko asmoz.

Urte mordoxka borondatezko atzerrian eman ondoren, sentitu ei zuen gaiaz idazteko grina. Emaitza bi antzezlan izan dira: *Los Gondra (Una historia vasca)* eta *Los otros Gondra (Relato vasco)*. Biak ala biak erdaraz. Biek ala biek Madrilen kritika eta publiko arrakasta handia lortuz, baita sariren bat ere. Madrilen euskal gatazkari buruzko antzezlanak arrakasta erdiestea ez da aterik egokiena Euskal Herriko antzokietara sartzeko. Horregatik, lanetatiko lehena ez bide zen antzeztu gurean. Bigarrena, aldiz, Bilbon eta Gasteizen ikusteko aukera izan dugu, bederen. Mesfidati, Arriagaratu egin nintzen, hainbat arrazoik bultzatuta: egilea bera ezagutu nuen gaztetan; familiako besteren bat ere ezagutzen dut; Iñaki Salvador, Jon Maya, Lander Otaola... talde artistikoko kideak dira; aktore nagusia, Sonsoles Benedicto, oso gogoko dut... Gustatu egin zitzaidan edukiari dagokionean, alderdi

formala ere ahantzi barik. Zerga iraultzailea, atentatuari beldurra, erbestea, jazarpen poliziala eta abar agertzen dira. Egilea saiatzen da bi aldeetako zioak eta sufrikarioak erakusten, ene iritziz, alde batekoak argiago gelditzen badira ere, ziur aski hoberen ezagutzen duena delako. Bere buruarekin eztabaidatzen du ahaztu edota barkatu beharraz. Aukera kontrajarriak bezala agertzen ditu. Badirudi ez dagoela besterik. Azkenean, barkamenaren alde jotzen du, baina ez komentzimendu osoz nonbait.

Ez da ezer ahaztu behar. Herriak memoria behar du izaten jarraitzeko, eta gaizki eginetatik ikasteko ere bai. Baina, barkatu? Maiz mintzatu da horretaz urteotan. Batzuek besteei inposatu nahi diete barkamena eskatzea; eurek, aldiz, ez ei dute ikusten inolako beharrik barkamenik eskatzeko, nahiz eta mina elkarri egin diogun eta biktimak bi aldeetan dauden.

Gertatutakoaz solastatzea da ezinbestekoa, elkar ezagutu eta elkarri entzun, *de facto* hainbat forotan jada egiten ari den bezala. Hortik sortzen dira berez adiskidetzeta eta elkarbizitzaren hobetzea. Ez da behar ez ahaztu ez barkatu. Aski da norbere burua ireki eta bestearen egia ere ezagutzea. Antza, Borja Ortiz de Gondra ere norabide horretan dabil bogan. Ongietorria. ●

Patris et Filii



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ametza da, zinez, aita-ama ospetsuen bihotzetan, haurrak beraien bidetik jarraitzen ikustea. Aitarengandik semearenganako ildoak hobesten dira denetan, halaber gurean: aski dira izen batzuk irakurtzea errealitateaz jabetzeko. Aitaren aurka, amaren alde, sekula ez etxekalte... Bidenabar, hainbat gaizto umerik ez duten miserable eta bekaitzentzat!

Patri Friedman amerikar prospektiba egile amerikarraren aitatzia gizon famatua zen. Miltonek (1912-2006) edo familiakoek zioten bezala, *Miltiek* 1950-1970 urteetan *Chicago Boys* delakoak hezten zituen bertako unibertsitateko sotoetan eta 1976an ekonomiako Nobel

Saria eman zitzaion. Mutilek, munduan zehar, neoliberalismoaren onurak hedatu zituzten, herrialde demokratikoe-tan botere militarrik jarritz edo katastrofe natural zein politikoen karietara berregituratze estruktural plan bortitza martxan emanez, *National Defence Fund*-aren (NDF) lagungoarekin!

Semebitxi *libertarianoak* ere ideia handiak ditu. Aitatzik bakartu jendeak, lurra utzi eta itsasoan uharte bakunetan bizirautea gonbidatzen ditu, sendia bakoitza berea, estatuaren begi-bistatik urrun, aberatsenak beti pobrezia-aren auzunetik eta airearen kutsaduratik libre.

Aitarengandik semearenganako endogamia. ●